DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko Uztailaren 20an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, gehiengoz, Bozeramaileen Batzordeak:

*"Torturaren biktimak babesteko nazioarteko eguna dela eta, ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*Ekainaren 26an, Nazio Batuen Erakundeak Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna bultzatu zuten, António Guterres idazkari nagusiaren hitzekin bat: "Torturatzaileen krimenak ez dira inola ere zigorgabe utzi behar, eta tortura ahalbidetzen duten sistemak eraldatu egin behar dira". Nazioarteko erakundeak gogorarazten du tortura gizateriaren aurkako krimena dela, eta salatzen du "biktimaren nortasuna suntsitzen duela eta gizaki ororen berezko duintasuna mespretxatzen duela".*

*Eusko Legebiltzarrak, 2019ko ekainaren 6an, egun hori ospatzeareen aldeko jarrera hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari torturaren biktima guztiak berariaz aitortzeko ekitaldia egin zezala eskatu zion, beste biktima batzuei egiten dizkien ekintzen antzeko parametroetan ulertuta.*

*Torturatutako pertsonen kolektiboak askotan adierazi du biktimizazio bikoitza jasaten dutela biktimarioei omenaldia eta aitorpena egiten zaizkienean.*

*Testuinguru horretan, udal honek torturaren biktimen eskaera kolektiboa babestu behar duela uste du, beste biktima batzuen parean onarpena izan dezaten, nahiz eta sufrimendu hori sistematikoki ezkutatu den eta erakundeek bertan*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 20 de julio de 2021, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*"DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL EN APOYO A LAS VÍCTIMAS DE LA TORTURA*

*El 26 de junio, la Organización de las Naciones Unidas auspició el Día Internacional en apoyo de las Víctimas de la Tortura, en palabras del secretario general, António Guterres: "Bajo ninguna circunstancia se debe permitir que los crímenes de los torturadores queden impunes y se deben desmantelar y transformar los sistemas que permiten la tortura". La organización internacional recuerda que la tortura es un crimen contra la humanidad y denuncia que "destruye la personalidad de la víctima y desprecia la dignidad intrínseca de todo ser humano".*

*El Parlamento Vasco, con fecha 6 de junio de 2019, se mostró partidario de conmemorar este día y solicitó al Gobierno Vasco llevara a cabo un acto de reconocimiento expreso a todas las víctimas de la tortura, entendida en parámetros similares a las acciones que realiza a otras víctimas.*

*El colectivo de personas torturadas ha señalado en numerosas ocasiones que sufren una doble victimización cuando se rinde homenaje y reconocimiento a los victimarios.*

*En este contexto, este Ayuntamiento considera que debe apoyar la demanda colectiva de las víctimas de la tortura para que puedan ser reconocidas en las mismas condiciones que otras víctimas, a pesar de que ese sufrimiento se ha ocultado sistemáticamente*

10740n XVII

*behera utzi dituzten erreklamazioak.*

*y de que las instituciones han ignorado las reclamaciones.*

*Horiek horrela, EH Bildu udal taldetik honako erakunde adierazpen hau aurkezten dugu:*

*Por todo ello, el grupo municipal de EH Bildu presenta la siguiente declaración institucional*

*1. Donostiako Udalak krimen horien zigorgabetasuna ez onartzera eta tortura ahalbidetzen duten sistemak (legeria eta auzitegi bereziak, torturaz erauzitako testigantzetan oinarritutako zigorrak...) eraldatzera eta bertan behera uztera deitzen du.*

*1. El Ayuntamiento de San Sebastián realiza un llamamiento a no aceptar la impunidad de estos crímenes y a modificar y suspender los sistemas que consientan la tortura (legislación y tribunales especiales, sanciones basadas en testimonios extraídos mediante tortura...).*

*2. Donostiako Udalak gorputz polizial desberdinen eskuetan tortura fisiko edo psikiko oso larriak jasan dituztenen abandonua eta ahanztura instituzionala salatzen du.*

*2. El Ayuntamiento de San Sebastián denuncia el abandono y el olvido institucional de quienes han sufrido torturas físicas o psíquicas muy graves a manos de distintos cuerpos policiales.*

*3. Donostiako Udalak aitortza instituzionala egiten dio haien sufrimenduari egia, justizia eta oroimena eskatuz, eta etorkizunean inoiz ez errepikatzeko neurriak har daitezen.” ================================*

*3. El Ayuntamiento de San Sebastián realiza un reconocimiento institucional de su sufrimiento, y reclama verdad, justicia y memoria, y que se adopten medidas para que nunca se reiteren en el futuro”. =============================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko uztailaren 28an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 28 de julio de 2021.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**